

	Espediente zk.: N.º expediente: 2022YHAU0004	Hautaketa-prozesuak Procesos de selección
Gaia: / Asunto: Lanbide bitartez UDALTZAINGOKO lan poltsa zabaltzea		

LANBIDEren bitartez Pasaia Udaleko Convocatoria y bases para la ampliación de la udaltzainen lan-poltsa zabaltzeko deialdia eta bolsa de trabajo de agentes de la Guardia Municipal del Ayuntamiento de Pasaia a través de LANBIDE

DEIALDIAREN ESTEKA

ENLACE DE LA CONVOCATORIA

1. Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da Pasaia Udaleko udaltzainen lan-poltsa zabaltzea da lehiaketa-sistemaren bitartez.

Lan-poltsa honek Udalean egun indarrean dagoen lan-poltsa zabalduko du, hain zuzen ere, 2020ko urtarrilaren 29ko 2020/0139 alkate ebazpenaren bidez eratutako lan poltsa.

Lehiaketa-fasea gainditzen duten izangaiak lan-poltsa horretan sartuko dira, eta horrek eskubidea emango die Udaltzaingoan sortzen den edozein langile premia betetzeko deituak izateko, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Izangaiak lan-poltsan sartuko dira lortutako puntuazioaren hurrenkeran, eta puntuaziorik onena lortu duen izangaia aurreko lan-poltsako azken kidearen atzetik jarriko da.

2. Izangaiak bete beharreko baldintzak

Ondorengo baldintzak bete beharko dira onartua izateko eta lehiaketan parte hartzeko:

- 18 urte beteta izatea eta 38 urte beteta ez izatea, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Nolanahi ere, muga hori Euskal Polizia Erkidegoko Poliziako kidegoetan emandako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.
- Gutxieneko altuera hau edukitzea: gizonek 1,65 m eta emakumeek 1,60 m.
- Batxilergoa, Lanbide Heziketako 2. mailako titulua edo horren baliokidea izatea.
- Euskarako 2. hizkuntza eskakizunaren edo horren baliokidearen jabe izatea. Prozesuan ez da egingo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.

1. Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria la ampliación de la bolsa de trabajo de Agentes de la Guardia Municipal del Ayuntamiento de Pasaia, mediante el sistema de concurso.

Esta bolsa de trabajo ampliará la que está en vigor actualmente en el Ayuntamiento, creada mediante resolución de la alcaldesa 2020/0139 de 29 de enero de 2020.

Las personas aspirantes que superen la Fase de Concurso, formarán parte de dicha bolsa de trabajo que les dará derecho, en el orden de puntuación obtenido en el proceso selectivo, a ser llamados para cubrir cualquiera de las necesidades de personal que surjan en la Guardia Municipal. Los aspirantes pasarán a integrar la bolsa de trabajo en el orden de puntuación obtenido, colocándose el/la aspirante que haya obtenido la mejor puntuación, por detrás del/de la último/a integrante de la bolsa anterior.

2. Condiciones de las personas aspirantes.

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en el concurso, serán requisitos necesarios:

- Tener cumplidos 18 años y no tener cumplidos 38 en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. En todo caso, este límite podrá ser compensado con los servicios prestados en los Cuerpos de Policía del País Vasco.
- Tener una estatura mínima de 1,65m los hombres y 1,60m las mujeres.
- Estar en posesión del título de Bachiller, Formación profesional de 2º grado o equivalente.
- Estar en posesión del Perfil Lingüístico 2 o equivalente. No se realizará un examen de acreditación del perfil lingüístico durante el proceso.

- | | |
|--|--|
| <p>e) B motako gidabaimena izatea.</p> <p>f) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza-araudia onartzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen diren baztertzeko osasun-kasuren batean ez egotea.</p> <p>g) Maltzurkeriazko delituagatik zigorrik jaso ez izana; Administrazio Publikoaren zerbitzutik baztertutakoa ez izatea; eta funtzio publikoan aritzeko gaitasungabetuta ez egotea.
Hala ere, birgaitze eskubidea onartuko zaie izangaiei, arau penal eta administratiboen arabera, baldin eta agiri ofizial bidez egiaztatzen badute hori.</p> <p>h) Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik Euskal Herriko Polizia kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozesutik baztertutakoa ez izatea (baldin eta baztertzea aitortu zen egunetik zigorraren iraungipen-epea adinako aldia igaro ez bada).</p> <p>i) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako trebakuntza-ikastaroa gainditua izatea.</p> | <p>e) Estar en posesión del permiso de conducir tipo B.</p> <p>f) No estar incurso/a en el cuadro de exclusiones médicas que figura en el Decreto 36/2004, de 17 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.</p> <p>g) No haber sido condenado por delito doloso, ni separado del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.
Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquella se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del aspirante.</p> <p>h) No haber sido excluido de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.</p> <p>i) Estar en posesión del curso de capacitación impartido por la Academia Vasca de Policía y Emergencias.</p> |
|--|--|

3. Izangaiak aukeratzea

Lanpostua betetzea premiazkoa denez, komeni da Enplegu Zerbitzu Publikora (LANBIDE) jotzea; beraz, zerbitzu horrek hautatutako izangaien artean egingo da aukeraketa.

Eskaerak aurkezteko epea **10 egun naturalekoa** izango da, Euskal Enplegu Zerbitzuak iragarkia argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Era berean, deialdia udalaren web orrian argitaratuko da.

LANBIDEko lan-eskaintzan izena emateaz gain, honako agiri hauek aurkeztu behar dira Pasaiako egoitza elektronikoa epe berean: hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, eta oinarritan zehazten diren merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.

4. Komunikazioak, jakinarazpenak eta informazioa

3. Selección de candidatos

Resultando que la urgencia en la cobertura aconseja acudir al Servicio Público de Empleo (LANBIDE), la selección se realizará entre los aspirantes seleccionados por el servicio público de empleo.

El plazo de presentación de instancias será de **10 días naturales** a contar desde la publicación del anuncio por parte del Servicio Público de Empleo Vasco. La convocatoria se publicará, a su vez, en la página web municipal.

Junto con la inscripción en la oferta de empleo en LANBIDE, y en el mismo plazo, se deberán presentar en el registro electrónico del Ayuntamiento de Pasaiá los documentos que acrediten el cumplimiento de los requisitos para formar parte en el proceso de selección, así como los documentos que acrediten los méritos que se especifican en las bases.

4. Comunicaciones, notificaciones e información

Prozedura honetatik eratorritako komunikazio eta Las comunicaciones y notificaciones derivadas de

jakinarazpen guztiak Pasaiaiko Udalaren web orrian argitaratuko dira.

este procedimiento se efectuarán por medio de su publicación en la página web municipal.

5. Hautagaiak onartzea

Izena emateko epea bukatu ondoren, udal web orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda.

3 eguneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bilakatuko da automatikoki. Erreklamazioen bat aurkeztuz gero, horiek onartu edo ezetsiko dira eta epaimahaiak beste ebazpen bat emango du, behin betiko zerrenda onartzeko.

5. Admisión de aspirantes

Finalizado el plazo de inscripción, se publicará en la web municipal la lista provisional de personas admitidas y excluidas.

Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones en el plazo de 3 días de su publicación. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva Resolución del Tribunal, por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, asimismo, en la forma indicada.

6. Epaimahai kalifikatzailea.

a) Osaera

Epaimahaiburua: Jose M Faya, Udaltzaingoaren arduraduna, edo haren ordezeko funtzionario bat.

Kideak:

— Borja Gonzalez, Udaltzaingoaren ofizialordea edo haren ordezeko funtzionario bat.

— Arantxa Flores, Pasaiaiko Udaleko Antolaketa eta GGBB Saileko teknikaria, edo haren ordezeko funtzionario bat. Idazkari-lanak egingo ditu.

6. Tribunal calificador

a) Composición

Presidente:

-Jose M Faya, responsable de Guardia municipal, o el/la funcionario que le sustituya

Vocales:

- Borja González, Suboficial de la Guardia municipal o el/la funcionario que le sustituya

- Arantxa Flores, Tco. De RR.HH del ayuntamiento de Pasaia o el/la funcionario/a que le sustituya, que actuará de secretaria a su vez.

7. Lehiaketa-fasea

Irizpide hauen arabera baloratuko dira merituenak:

- **Emandako zerbitzuak:** Udaltzain gisa lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu (10 puntu gehienez).

Merituenak baloratzeko garaian hilabeteak hartuko dira kontuan; hilabeteetik beherako lan-esperientziak ez dira kontuan hartuko. Hilabetetzat hartuko da 30 egun naturalen batura.

Egindako zerbitzuak egiaztatzeko, zerbitzu horiek eman diren administrazioaren ziurtagiriak aurkeztuko dira. Ziurtagiri horietan zehaztu beharko da eginkizunak zer plazatan bete diren eta zerbitzu harremanak zenbat iraun duen.

- **Titulazio akademiko ofizialak.** Gehienez 2 puntu emango dira.

Zuzenbideko, Kriminologiako, Herritarren Segurtasuneko edo Babes Zibileko tituluak, eta Epaimahai kalifikatzailearen iritzian arlo horiekin eta plazarekin zerikusia duten titulazioak horrela

7. Fase de concurso

Los méritos se valorarán conforme a lo siguiente:

- **Servicios prestados,** 0,25 puntos por mes de servicios prestados como Agente de la Guardia Municipal (sobre un máximo de 10 puntos).

Los méritos se valorarán en función del tiempo transcurrido por períodos de meses, despreciándose las fracciones inferiores al mes. A los efectos se entenderá por mes la suma de 30 días naturales.

La acreditación de los servicios se realizará mediante certificaciones de la Administración en las que se hayan prestado, especificando las plazas en las que se han desempeñado las funciones, así como la duración de la relación de servicios.

- **Títulos académicos oficiales.** Se valorará sobre un máximo de 2 puntos.

Los títulos de Derecho, Criminología, Seguridad Ciudadana, Protección Civil y aquellos otros que el Tribunal Calificador entienda que tienen una relación con los anteriormente citados y con las

puntuatuko dira:

- Lizentziatura titulua, unibertsitate gradua edo baliokidea: 2 puntu.
- Diplomatura maila edo baliokidea: puntu 1.

- **Ikastaroak eta prestakuntza-jarduerak.** Gehienez 3 puntu emango dira.

Erakunde publikoek antolatu edo emandako ikastaroak eta prestakuntza-jarduerak baloratuko dira, betiere epaimahaiaren arabera, lanpostuarekin lotura zuzena badute.

- 20 orduetik beherakoa: 0,5 puntu.
- 20 orduetik gorakoa: puntu 1.

8. Epaimahaiaren proposamena

Egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko kalifikazioak argitaratuko ditu.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da; eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.

Berdinketarik badago, irizpide hauek kontuan izanik ezarriko da hurrenkera ordena:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuta, emakumeei emango zaie lehentasuna, non eta beste hautagaiak sexuarengatik diskriminatzaileak ez diren eta neurria ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak dituen, hala nola, enplegua eskuratzeko arazoak dituen beste kolektibo batzuetakoa izatea.

2. Emandako zerbitzuetan puntuazio handiena lortu duenaren alde.

3. Oraindik ere berdinketa badago, hurrenkera ordena zozketa bidez ezarriko da.

9. Gertakariak, inpugnazioak eta legeria osagarria.

Epaimahaiak baimena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den gaietan.

Interesdunek deialdi eta oinarri hauen aurka egin

funciones de la plaza convocada se puntuarán así:

- Titulación de nivel de licenciatura, grado universitario o equivalente: 2 puntos.
- Titulación de nivel de diplomatura o equivalente: 1 punto.

- **Cursos y actividades formativas.** Se valorará sobre un máximo de 3 puntos.

Se valorarán los cursos y actividades formativas, organizadas o impartidas por instituciones públicas, a juicio del Tribunal calificador, estén exclusiva y directamente relacionados con el puesto.

- Hasta 20 horas de duración: 0,5 puntos.
- A partir de 20 horas: 1 punto.

8. Propuesta del Tribunal

Terminado el plazo para formular las reclamaciones que estimen oportunas, el Tribunal hará públicas las calificaciones definitivas.

La calificación final de cada aspirante estará constituida por la suma de las puntuaciones obtenidas en el conjunto del proceso, lo que determinará el orden de puntuación definitivo.

En caso de empate, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1. En aplicación del artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se dará prioridad a las mujeres, salvo que concurren en la otra persona candidata motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.

2. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en los servicios prestados.

3. Si todavía persiste el empate, el orden de prelación se establecerá por sorteo.

9. Incidencias, impugnaciones y legislación complementaria

El Tribunal queda autorizado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo en todo lo no previsto en estas bases.

La convocatoria, sus bases y cuantos actos

ahal izango dute, bai eta deialdiaren ondorioz eta epaimahaiaren lanaren ondorioz egiten diren administrazio-egintza guztien aurka ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusitako gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak sartzeko erregelamendua, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituena; APU/1461/2002 Agindua, ekainaren 6koa, bitarteko funtzionarioak hautatu eta izendatzeko arauari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

administrativos se deriven de aquéllos y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por los interesados en los plazos y en la forma establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En lo no previsto en las bases, regirá por los siguientes:

Reglamento de ingreso del personal al servicio de la Administración del Estado aprobada por Real Decreto 364/1995, Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el Procedimiento de Selección de los Funcionarios de Administración Local, la Orden APU/1461/2002, de 6 de junio, sobre Normas para selección y nombramiento de personal funcionario interino, y demás disposiciones que resultaren de aplicación.

Pasaian, 2022ko ekainaren 30an